

Datak: Abenduak 28, 29 eta 30

Ordutegia: 10:00 – 13:00

Lekua: Dantzagune. Arteleku (Kristobaldegí, 14. Txomin Enea, Donostia)

Ikastaroaren prezioa: 30€

Izen emateko epea: Abenduak 13

Dantzaren mugimendua eta erritmoaren pedagogia

Zuzen-zuzenean dantza irakaskuntzan diharduten dantzari eta dantza-irakasleei begira prestatutako ikastaroa da honako hau. Dantzaren transmisioan eta irakaskuntza ahaleginetan izaten diren hutsunea eta zalantzen aurrean lagungarri gertatuko diren oinarri eta ezagutza teoriko zein praktikoak eskainiko ditu Aiko taldeak. Dantza irakaskuntzan, mugimendu eta erritmoaren lanketan aitzeko oinarri teoriko, metodologiko eta praktikoak eskainiko dituzte ikastaro honetan Sabin Bikandi, Patxi Laborda eta Larraitz Artetxek. Dantza klasean erritmoak lantzeko eta mugimenduak modu samurrean transmititzeko sistemak landuko dira ikastaroan.



Patxi Laborda

Dantza maisu, koreografo eta txuntxuneroa. Ikuskizun ezberdinen gidoilari eta zuzendaria, dantzen berreskuratze edo birsortze prozesuetan aditua da. Neguko folklorea berezitua, hainbat lan egin ditu euskal dantzaz, neguko solstizioaz eta inauterien inguruan. Gaur egun Bilboko musika eskolako dantza maisu bezala aritzen da.



Larraitz Artetxe

Dantzari eta dantza irakaslea. Euskal Herri eta mundu osotik dantzan aritua Galdakaoko Andra Mari Dantza Taldearekin 1988. urtean hasi zenetik. Dantza irakasle moduan gazte eta helduekin lanean ari da azken urteotan hainbat herri eta erakundek antolatutako ikastaroetan. Jotaren dantzatzeko modu tradizional zaharren azterketa eta pedagogian espezializatu.



Sabin Bikandi

Goi mailako musika irakaslea eta Etnomusikologian Dokorea Londreseko unibertsitatean. Hainbat talde eta erakundetan aritu da irakasle edo/ta jotzaile moduan. Txistulari aldizkariko zuzendaria izan zen (1992-1995). Konpositore gisa, txistu eta tradiziozko musika inguruan hainbat musika lan idatzi eta moldatu ditu. Gaur egun, Bilboko udaleko danbolinteroa da eta Musikeneko tradiziozko dantza-maisua.

Izen-abizenak: Jaioturtea:
Tfnoa.: Emaila:
Herria: Posta-kodea:
Zure dantzari jarduera zein den adierazi:
Dantza irakaslea bazara non diharduzun adierazi:

Ikastaroak: Markatu X batekin dagokion laukitxoan.

- Zuberoako dantzak
 Argia oroimenaren haritik
 Dantzaren mugimendua eta erritmoaren pedagogia

Dantzan Ikasi
ikasi@dantzan.com
Tfno. 943 53 04 40
513 Posta Kutxatila
2600 Eibar

Betebeharrak

Gutxieneko adina: 16 urte.
Dantzari eskarmentua izatea.
Leku mugatua. Antolatzailearen esku geratzen da onarpen eskubidea. Dantza irakasleek izango dute lehentasuna.

Izen-ematea

Emailaz: Bidali mezu bat ikasi@dantzan.com helbidera honako datu hauekin:

- Izen-abizenak
- Jaioturtea
- Tfnoa.
- Emaila
- Herria
- Posta-kodea
- Zure dantzari jarduera zein den adierazi
- Dantza irakaslea bazara non diharduzun adierazi
- Zein ikastarotan eman nahi duzun izena

Postaz: Izen emateko txartela behar bezala bete, eta **Dantzan Ikasira** bidali (**Dantzan Ikasi. 513 Posta Kutxatila. 20600 Eibar**)

Izen-emate txartela

Izen-emateko epea

Zuberoako dantzak: **urriak 25.**

Argia oroimenaren haritik: **azaroak 13.**

Dantzaren mugimendua eta erritmoaren pedagogia: **abenduak 13.**

Ordainketa:

Behin ikastaldian onartua izan zarela ziurtatzerakoan, matrikularen zenbatekoa **Kutxako 2101 0381 07 0001329473** zenbakidun kontu korrontean diru-sarrera egin eta ziurtagiria ikastaro egunean eraman.

Dantzan Ikasi Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimena da. Dantzan.com elkarteak arduratzen da egitasmoaren kudeaketa teknikoaz. Gipuzkoako Euskal Dantzarren Biltzarra eta Ikerfolk elkarteek gainbegiratzen dute proiektuaren ibilbidea Dantzan Ikasi-ren Jarraipen Batzordetik.

Dantzan Ikasi
www.dantzanikasi.com
ikasi@dantzan.com
Tfnoa. 943 53 04 40
513 Posta Kutxatila
20600 Eibar

Kultura sustapen eta hedapeneko zuzendaritza
Koldo Mitxelena kulturunea
www.gipuzkoakultura.net
Tfnoa. 943 11 28 91
Urdaneta, 9 • 20006 Donostia-San Sebastián



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura eta Euskara Departamentua
Departamento de Cultura y Euskera



Dantzan Ikasi

urria **2** 2009

- ☉ Ikastaroak
- ☉ Mintegiak
- ☉ Tailer teorikoak eta praktikoak
- ☉ Cursos
- ☉ Seminarios
- ☉ Talleres teóricos y prácticos

Izen-emate txartela

